

www.ilanda.eu



GETXO ABANGOARDIA, KULTURA ETA EUSKARA ERREFENTE SENDOA

EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN KONPROMISOA

Getxo, 2007.eko maiatzak 24

www.eginbehardugu.com



Euzko Alberdi Jeltzalearen konpromisoek jarduera hauetan dute euren oinarria:

Kafe Antzokia. Hurrengo legealdian, Getxoko EAJK bere gain hartuko du Kafe Antzokia eraikitzen hasteko prozesuaren konpromisoa. Proiektua egiteaz gain, egokia bada, musikarako espazio bat jartzeko lanak egingo ditu, bertan musika aisialdiaren eta arte-munduaren inguruan giro gazte eta euskaldunerako topaketa leku bat sor dadin.

Kultura eskaintzari begiratuta, Getxok maila nabarmena du, bere programazioan jaialdi garrantzitsuak baititu, esate baterako, jazz, folk eta blues jaialdiak, artisautza azoka, komiki aretoa, udazkeneko kontzertuak edota antzerki jardunaldiak. Horrez gain, EAJK Getxo Antzoki berria aurkeztu egin du eta esan du udalerrian arte eszenikoen eskaintza areagotu egingo duen proiektu enblematikotzat hartzen duela.

Gainera, aisialdi eta kultura proposamen horren osagarri gisa, Getxon kafe Antzoki bat eraikitze konpromiso bat nabarmendu behar da. Azpiegitura horretan dagokion lekua izango du punta-puntako programazio batek, eta anitzagoa nahiz kalitate hobekoa izango da. Batez ere, gazteentzako leku bat izango da, eta pop-rock musika ekimenak, euskaldunentzako formatu txikiko abangoardia ekimenak, giro lasaikoak eta informalak ikusi eta entzuteko aukera emango duena.

Getxon ikusle-entzule potentzial nahikoa daude bertako pop-rock musika, antzerki alternatibo edo euskara jarduerak egiteko taldeen inguruan. Orain urte batzuk, talde horiek bazeuzkaten gaur egun desagertu diren eszenatokiak, hala nola Swans, Gwendoline etab.

Getxoko Kafe Antzokia proiektuaren helburu nagusia da ondo antolatu eta finkatutako programazio bat osatzea, hauei erantzun egingo diena: gazteek eurek sortzen dituzten hainbat genero musikalen inguruko eskakizunak, kafe-antzokia, hitzaldiak, erakusketak, bertso saioak etab. Ezarri nahi duten sistema da Euskadiko hainbat hiritan martxan dabiltzan beste kafe antzokiaren modukoa, gazteentzat erreferentzia argia baitira, eta horrez gain, euskaldunen topaketetarako leku aproposa ere baitira. Euskal kultura sustatzeko modua ere bada, beraz, horiek guztiek programazioko eskaintza interesgarriago eta aberasgarriago egingo dute.

Hurrengo legealdian Getxoko Kafe Antzokiko proiektua zehaztu egingo da: erabilera anitzeko espazioa, formatu txikiko eta izaera anitzeko ekitaldiak eta proposamenak bertan hartuko dituena, eta azken batean, arreta ekitaldien edukietara erakarriko duena. Edozein jarduera bertan hartuko duen areto arrunta, azken generazioko azpiegitura teknikoak, teknologikoa eta arkitektonikoak dituena. Pop-rock kontzertuak, bertako taldeen saioak, blues edo jazz kontzertuak, pop-rock taldeak sustatzeko lehiaketak, bertso afariak, kantuketan saioak, dantzak, jaiak, gazteen ospakizunak, entseguak, eta beste hainbat ekimen egiteko lekua eskainiko duena, erabilera anitzeko espazioa izango baita.

"Getxo Sound Festival". Getxoko pop-rock musika bultzatzeko eta sustatzeko kontzeptu edo programa berria da. Ospetsu egin diren taldeen eta euren ibilbidean nabarmentzen dabilzanen ekitaldiek osatuko dute.

Artea sortzen ere Getxo punta-puntako udalerrria da, zehatzago esanda, musika eta musika taldeak sortzen. 90eko hamarkadan Getxo Sound deritzon fenomenoak jaio zen eta horren ondorioz, bertako hainbat pop-rock taldek izena eta itzala lortu zituzten. Banda horietako batzuek gaur egun badiraute.

Oinarri horiek kontuan hartuta, logikoa da orain Getxon pop-rock taldeen bigarren belaunaldia egotea eta hala da: udalerriko hamarren bat taldek ekitaldi jakinak eskaintzen dituzte eta euren lanak grabatu ere egiten dituzte.

Musika sormenari eta gazteek eskatutakoari bide emateko, Getxoko EAJk "Getxo Sound Band"en bidez, udalerriko pop-rock banda edota taldeak bultzatzeko, sustatzeko eta euren laguntza emateko konpromisoa hartu du eta horretarako egutegi bat egin du kontzertu batzuk antolatuz. Bertan, batera hartuko dute parte ospetsu egin diren taldeek eta promesa berriek.

"Getxo Zine Platoa". EAJren proposamena programa hori sortzea eta bultzatzea da, horrela, filmen, musika bideoen edota publizitate iragarkien bidez, udalerrria sustatzeko eta ezagutarazteko. Gure inguru pribilegiatuei esker, Getxo toki egoki bezala agertzen hasi da irudiaren munduko produktore eta zuzendarien agendetan, eta alde horretatik Getxo sustatzea gero eta garrantzitsuagoa da.

Planteamendu horren barruan hainbat alderdi eta sektore daude, "Getxo Zine Platoa" proiektua abian jartzean Euzko Alberdi Jeltzalearen xedea ez baita bakarrik Getxoren irudia filmak, laburmetraiak edo publizitate iragarkiak egiteko leku apropos bezala sustatzea, baizik eta nazioarteko izaera duen zine edo telebista bezalako alorretan zehar, Getxo turismo gune erakarri bezala ere aurkeztea. Horretarako, Getxon filmatzeko interesa duten produktoreei eta ekipoei tramiteak egiten laguntzeko administrazio-protokolo bat ere jartzea pentsatu da, euren lana garatzeko bide egoki eta eroso eskaintzeko.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

Argi dago eta nabarmena da Euzko Alberdi Jeltzaleak euskararekin eta euskal kulturarekin duen konpromisoa handia dela. Izan ere, Getxoko EAJren ustez, funtsezkoa da gure ondare kultural eta sozialari lotutako edozein ekimen zaintzea ez ezik bultzatzea, sakontzea eta aktibatzea ere, ondare horixe baita gure Herriaren nortasunaren oinarritzko erreferentzia; eta ez hori bakarrik, baizik eta gure hizkuntza jakiteak eta antzinako kulturaren tradizioak ezagutzeak ematen duen aberastasuna ere sustatzea.

Euskara eta euskal kultura baitira Getxon ere kultur aniztasunari begirunea dion gizarte bat egiten jarraitzeko oinarriak.

Arlo horretan, asko dira Euzko Alberdi Jeltzalearen konpromiso eta planteamenduak:

.- Euskara alorrean inplikaturako eragile eta erakundeekin batera, **Getxon euskararen erabilera biziberritzeko Plan berria** egitea eta garatzea:

- Erakundeen aldetik: Udala euskalduntzeko prozesua berriro ere sustatu, bertako langileen eta korporatiboen euren gaitasuna hobetzeko laguntzen bidez, hiritarrei euskaraz ematen zaien arreta hobetuz, erakundearen, espazio eta zerbitzu publikoen paisaia linguistikoa egokituz etab.
- Gizartearen aldetik: bizitza sozial getxoztarreko eragile sozialen inplikazioa lortzea, euren esparruan (merkataritza, ostalaritza, kirolak, kultura, aisialdia etab.) euskara erabiltzearen alde egin dezaten, horretarako beharrezko neurri egokiak ezarriz (dinamizatzaileak, paisaia linguistikoa egokitzeko dirulaguntzak, ikasteko laguntzak, itzultzeko eta aurkezpenak euskaraz egiteko zerbitzuak etab.), euskaraz ikastearen aldeko sentsibilizazioa kanpainak garatuz etab
- Banakakoen eta kolektiboen aldetik: gure hizkuntza normalizatzeko estrategikoak diren sektoreentzako -merkatariak, ostalariak, gurasoak, aitite-amamak, elkarteetako begiraleak, haurtzaindegietako begiraleak etab.- dirulaguntzak emanez, eta euskaltegietako matrikula ordaintzeko laguntzak eskainiz.
- Parte hartzeari dagokionez, Euskararen aholkularitza batzordeari bultzada berri bat emanez.
- Beste kultura eta hizkuntza batzuk dituzten herrialdeetatik datozen getxoztar berrien artean, gure hizkuntzaren normalizazioa dela-eta sortu den egoerari neurri zehatz eta eraginkorren bidez aurre eginez
- Udalari ez dagozkion baina Getxoko bizitza sozialean eragina duten erakunde eta entitate eskudunen inplikazioa bilatuz, euskaren erabileraren alde egin dezaten.

.- Euskara erabiltzen ohitzeko motibazio-programak.

EAJk interes berezia adierazi du bai getxoztarren bai beste leku batzuetatik etorri diren pertsonen artean ohiko euskararen erabilera normalizatzeko eta bultzatzeko garatzen diren programez. Bere asmoa da euskal hizkuntzaren erabilera ohikoa izatea eta denon artean normalizatua egotea. Bi dira horretarako bideratu diren programa nagusiak:

- **Sendi proiektua**, Getxoko sendiek euren eguneroko bizitza edo jarduera batzuk euskaraz egin ahal izateko. Xedea da Getxoko gurasoen artean euskararen erabilera sustatzea, familiaren bidezko transmisioak duen garrantzia nabarmentzeko. Hainbat tailer antolatzen dira gurasoentzat: Euskal kanten tailerra, umeentzako kanta herrikoiak (lo-kantak, jokoak eta dantzak) ikasteko; Ipuinak umei nola kontatu, umei ipuinak euskaraz kontatzeko; euskal jolasak, euskaraz jolasten ikasteko; Gurasoak lagunduz, gurasoek umei etxerako lanak egiten lagundu ahal izateko.
- **AISIA: atzerritarrentzako harrera-ikastaroak** dira eta helburua euskara ikasten hasteko laguntza ematea da, oinarrizko gaiak ikas ditzaten, esate baterako agurrak, familia, eskola, garraioa, merkaturia, osasuna etab. Horrela, atzerritarrek kartelak eta espazioak identifikatzen ikas dezakete eta gainera, urrunetik Getxoraino etorri direnei euskara ikasteko aukera emateaz gain, euskara Getxoko hizkuntzetako bat eta gure udalerriaren ezaugarri nagusi bat ere badela jakinarazten diegu. Euskara dakienak hobeto ezagutuko du Getxo.

.- Getxoko EAJk gure udalerrian euskara, normalizatzeko prozesuaren, euskal kulturaren eta euskal nortasunaren alde alor anitzetan (kultura, hizkuntza, folklorea, musika, bertsolaritza, umeentzako aisialdia, gazteentzako aisialdia, hedabideak etab.) lan egiten duten elkarteak eta sortzen diren ekimenak sendo bultzatu, sustatu eta goraipatuko ditu.

.- Udal euskaltegiko kudeaketa eta baldintza hobetzea.

.- Euskadin kultura, sormen, musika, zine, antzerki eta orokorrean arte munduan euskaraz garatzen eta sortzen diren kalitatezko ekimenei laguntza ematea. Irizpide hori kontuan hartuko da Getxoko programazio kulturala egiteko momentuan, ezarri beharreko irizpide garrantzitsuekin batera.

.- Gure herriko ohiturak, tradizioak eta nortasuna zaintzearen nahiz bultzatzearen aldeko laguntza sendoa ematea. Eta helburu hori lortzeko lanean ari diren elkarteen nahiz sortzen diren ekimenen (Olentzero, Agate Deuna, Inauteriak, jaiak etab.) alde ere egitea.